



Mutrikuko Udala

MUTRIKUKO HERRIGUNEKO HONDARTZAKO KANTINA ETA W.C. ZERBITZUAK
KUDEATZEKO ZERBITZUAREN KONTRATU BEREZIA ESLEITZEKO BALDINTZA
TEKNIKOEN AGIRIA

1.- XEDEA

Kontratuaren xedea Mutrikuko herriguneko hondartzan kokatutako eraikinetan dauden kantina eta WC zerbitzuak (gizon eta emakumeneena eta egokitua) ematea da.

Kontratu honen bidez, Mutrikuko herriguneko hondartzako zerbitzu orokorrak kudeatzeko baldintzak betetzen direla bermatu nahi da, besteak beste:

- Mutrikuko herriguneko hondartzako taberna eta kafetegi zerbitzua duen kantina kudeatzea.
- Komunen kudeaketa.

Covid-19 osasun-krisiaren egoera

Covid-19ak sortutako osasun-larrialdiko egoeraren aurrean eta alarma-egoeraren deklarazioaren aurrean, kontratu hau, bere hedadura eta baldintza guztietan, administrazio publiko eskudunek hartzen dituzten arauen mende geratzen da.

Kontratazio-espediterearen izapidetzea eta, hala badagokio, kontratu horren betearazpena edozein unetan eten edo aldatu ahal izango da, kontratazio-espeditere horretako interesdunei inolako kalte-ordainik eman beharrik gabe.

Covid-19ak eragindako egoera kontuan hartuta, indarrean dagoen araudiak ezarritako higiene- eta/edo prebentzio-neurriak uneoro bermatu beharko dira.

Halaber, edukiera une bakoitzean indarrean dagoen araudiak zehaztuko du. Behar diren kontrol-neurriak hartu beharko dira, une oro bermatzeko pertsonen arteko distantziak, edukiera eta kolen kudeaketa, bai eta instalazioetan, terrazan zein komunetan, behar diren garbiketa-neurriak/-maiztasuna ere.

2.- KONTRATUAREN EXEKUZIOA ETA IRAUPENA

Kontratuaren iraupena bi BI URTEKOA izango da, kontratua sinatzen den egunetik aurrera, hau da, 2021 eta 2022ko udako denboraldiak. Era berean, eta bi alderdiek hala adostuz gero, kontratua urtero luzatu ahal izango da, baina kontratuaren iraupen osoa, luzapena barne, ezin izango da 2023 denboraldia baino luzeagoa izan. Luzapena dagokion urteko martxoaren 31 baino lehen eskatu beharko du esleipendunak. Epe hori baino lehen aurkezten ez bada, esleipendunak kontratuaren luzapenari uko egiten diola ulertuko da.

Kontratuaren iraupena, beti ere, Itsasertzetako Zerbitzu Probintzialak denboraldi bakoitzaren haseran zehazten duenaren menpe egongo da.

Betearazteko epea agintari eskudunak bere garaian ezartzen duenaren arabera izango da. Inolako mugarik zehazten ez bada, kontratua gauzatzeko epea ekainaren 15etik irailaren 15era bitartekoa izango da. Hala ere, espedientearen izapidetzea luzatzen bada, kontratua formalizatzen den egunetik aurrera hasiko da zerbitzuaren egikaritzea.

Egikaritze-epe hori luzatu ahal izango litzateke, Udalaren alde aurreko baimenarekin eta bi alde adostasunarekin, beste administrazio eskudun batzuen baimenei kalterik egin gabe, eta esleipendunak bere gain hartuko ditu epea luzatzearen ondorioz sor daitezkeen gastuak.

Zerbitzuaren ordutegia baldintza teknikoan agiriko 4. atalean zehazten da.

3.- TARIFAK

Emakidadunak ezingo dio inolako tarifarik kobratu hiritarrei w.c zerbitzuak erabiltzeagatik.

4.- ESLEIPENDUNAREN OINARRIZKO BETEBEHARRAK

Esleipendunaren oinarriko betebeharrak honako hauek izango dira:

- Kontratuaren xede den zerbitzua ematea, eta, horretarako, zerbitzua ematen hasten den egunerako lokalak eta instalazioak martxan jartzea ondoko moduan:
 - Kantina zerbitzua: taberna eta kafetegi zerbitzu arrunta eman beharko da, beti ere, esleipendunak osasun administrazio publikoei dagokien baimen eta gaitasuna baldin badauka.
 - Komun zerbitzua: esleipendunak zerbitzu hau burutzerakoan egokiak diren osasun-higiene garbiketa bermatu beharko du. Kontsumigarriak diren elementuak hornitu beharko ditu adibidez paper higienikoa, eskuetako xaboa... Garbiketa gutxienez egunean behin egin beharko da.
- Esleipendunak zerbitzua emango du kontratuak irauten duen bitartean eta bere kontura izango dira oro har kontratuaren funtzionamenduak sortzen dituen gastuak.
- Argindarra eta edateko ura hornitzeko kontratuaren alta esleipendunak egingo du kostua bere gain izanez eta jarduera gauzatzeko egokitzat jotzen dituen beharren arabera. Bere ardura izango da dokumentu teknikoak egitea eta instalazioak legezztatzea, bai linea bat jartzea edo bai egokitzapen edo aldaketa egitea ere. Jarduera horiek guztiek dagokion udal tkenikariaren onespena beharko dute.

Behin kontratua amaituta, esleipendunak alta emandakok instalazio guztien baja izapidetu beharko du.

- Esleipendunak bertan instalatzen dituzten zati metaliko guztiak, bai eta etxetresna elektrikoak eta abar ere, lurrera behar bezala konektatuta egongo dira.
- Barneko instalazio elektrikoak instalatzaile baimendu batek egingo ditu, betiere 2002ko abuztuaren 2ko behe-tentsioko erregelamendu elektroteknikotik edo horren ordezkotik



Mutrikuko Udala

eratorritako arauak betez. Nolanahi ere, instalazio horien kostua esleipendunaren kontura izango da.

- Barruko ur-instalazioak eta harrasketako hustubideak baimendutako instalatzaile batek egingo ditu, eta, nolanahi ere, esleipendunaren kontura.
- Esleipendunak ordainduko ditu instalazio elektrikoaren eta ur-instalazioaren ondoriozko gastu guztiak, bai eta negozioaren ustiapenari dagozkionak ere.
- Kantinaren barruan beharrezko instalazioak egin ondoren, esleipendunek udalari abisua emango diote, ikuskapen teknikoa egin ondoren, egoki baderitzote dagokion irekiera-lizentzia eman dezan. Lizentzia hori gabe, jardueraren zerbitzuak ezin izango dira inola ere hasi.
- Energiaren eta gainerako kontsumoen ordainketa, zerbitzuetan eta barruko dutxan kontsumitzen den ura izan ezik; horretarako, Udalak dagokion kontagailua jarriko du.
- Energia eta gainerako kontsumoak ordaintzea, komunetan eta barruko dutxan kontsumitzen den ura izan ezik; horretarako, Udalak kontagailua jarriko du.
- Instalazioetan egin beharreko lanetarako behar besteko gaitasuna duten langileak egotea.
- Osasunaren, lanaren edo beste arlo batzuen arloan aipatzen diren lege-xedapen guztiak betetzea.

Instalazioen erabilera-mantentze akastunari egotz dakizkiokeen osasun-gabeziak direla eta, erakunde eskudunek udal honi zehapen ekonomikoren bat ezartzen badiote, esleipenduna izango da horren erantzule eta berehala ordainduko du.

- Eraikinak eta instalazioak behar bezala mantentzea eta funtzionamendu, garbiketa eta higiene egoera onean mantentzea, harik eta, kontratua amaitzeagatik, kontratuari dagozkion eta behar bezala emateko beharrezkoak diren instalazio guztiekin itzuli behar diren arte.

Instalazioen garbiketa ohiko garbitasun-arauen arabera egin beharko da. Hala ere, Covid-19 sortutako osasun-larrialdiaren aurrean, garbiketa-baldintzak administrazio publiko eskudunek hartzen dituzten arauen mende egongo dira.

- Kantina eta W.C. zerbitzuak irekitzeko eta ixteko ordutegia 10:00etatik 00:00etara da, eta, egoeraren bat dela eta ordutegia luzatu nahi badu, udal honen baimena eskatu beharko du, behar besteko aurrerapenarekin.
- Irekiera-egunei dagokienez, esleipendunak nahitaez eman behar du W.C. zerbitzuak irekitzeko eta ixteko, mantentzeko eta garbitzeko zerbitzua egunero, baldintza meteorologikoak alde batera utzita. Betebehar hori betetzen ez bada, 100,00 €ko zehapena ezarriko da eguneko.
- Hirugarrenei erantzutea emandako zerbitzuaren funtzionamenduak eragin ditzakeen kalteengatik, Mutrikuko Udalak ezarritako aginduak betez egindako ekintzetatik datozenak izan ezik.
- Erantzukizun zibilagatiko aseguru-poliza bat sinatzea, erabiltzaileei sor dakizkiokeen kalte-galerak bermatzeko.

- Mutrikuko Udalari itzuli beharreko ondasunak edo instalazioak baimenik gabe ez besterentzea, ez zamatzea.
- Kontratua gauzatzea, Udalak berariaz hala eskatzen ez badu, eta ez eskualdatzea edo hirugarrenei lagatzea.
- Esleipendunak prestazio espezifikoak edo osagarriak azpikontratatu behar baditu, Mutrikuko Udalari jakinaraziko dio aldez aurretik eta idatziz, eta argi eta garbi adieraziko ditu azpikontratazioaren baldintza teknikoak. Horrek beretzat gordetzen du azpikontratazio hori onartzeko edo ez onartzeko eskubidea, haren mugak ezartzeko eskubidea, aplikatu beharreko araudian aurreikusitakoaren barruan, eta azpikontratistari berme, fidantza edo abal mota guztiak eskatzeko eskubidea.
- Esleipendunak esleipen-egintzaren unean dauden baldintzetan jasoko ditu instalazioak.

Hauek dira kontratuaren xedea osatzen duten eta Mutrikuko Udalak eskuragarri ezarriko dituen instalazioak:

- Ostalaritzako moduloa (kantina)
- Biltegi moduloa
- W.C. zerbitzuaren moduloa, mistoa izango da eta zerbitzu egokitua izango du.

Enpresa emakidadunak bere kontura egingo ditu funtzionamenduan jartzeko beharrezko ekipamendua eta altzariak, eta horren deskribapen-memoria aurkeztu beharko du lizitazioan. Ekipamendu eta altzari horiek Udalak onartuko ditu emakidaren esleipenean, eta etorkizunean aldatu nahi izanez gero, administrazio honek onartu beharko ditu. Emakidak dirauen bitartean, aurreko guztiaren mantentzeaz eta kontserbazioaz arduratuko da. Elementu horiek kontratua amaitzean desmuntatu beharko dira eta Udalak eskuragarri ezarritako instalazioak zerbitzua ematen hastean zeuden egoeran itzuliko dira, esleipendunari inolako kalte-ordainik eragin gabe.

- Kantina erabiltzeko eta ustiatzeko kontratuaren barruan dago terraza bat jartzeko aukera, eta, beraz, esleipendunek mahaiak eta aulkiak dituen terraza hori instalatu ahal izango dute. Terraza klausulen agiri honetako III. eranskineko planoetan adierazitako mugen barruan instalatu beharko da eta beti ere, momento bakoitzean Itsasertzetako Zerbitzu Probintzialak zehaztukoaren menpean egongo da.

Terrazarako eta mahaietarako adierazitako eremua zabaltzeko edo aldatzeko eskaerak, COVID-19ri buruzko osasun-arauak betetzeko helburuz, agintari eskudunak onartu beharko ditu (Itsasertzetako Zerbitzu Probintziala), eta terraza handitu nahi izanez gero, esleipendunaren kontura izango da kostua.

Okupazioak ezin izango du inola ere baimendutako azalera gainditu, eta elementu guztiak mugaketaren barruan geratu beharko dira. Titularrak konpondu egin beharko ditu instalazioaren ondorioz bide publikoan sortzen diren kalteak.

Esleipendunak Zaratzen eta Bibrazioen Udal Ordenantza bete beharko du. Era berean, gainerako herritarren lasaitasunerako eskubidea errespetatzen dela zainduko du, eta, beraz, ez du eskandalurik, liskarrik eta zaratarik onartuko, arreta berezia jarritz 22:00etatik aurrera.



Mutrikuko Udala

Alkatetzak bide publikoa kentzea agindu ahal izango du baimendutako instalazio guztiak edo batzuk kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe, baldin eta trafiko, urbanizazio, obra edo kultura- edo kirol-lan edo -jarduerengatik edo interes orokorreko beste arrazoi batzuegatik hala komeni bada.

Esleipenduna behartuta dago okupatzen den lurzorua nahiz instalazioa bera eta haren elementu osagarriak garbitasun-, segurtasun- eta apainketa-baldintza egokietan mantentzera.

Debekatuta dago kanpoko barrak, makinak, kioskoak, karpak edo antzekoak instalatzea, salbuespeneko egoera batean baimen berezirik eman ezean.

Kantina eta terraza ustiatzearen ondoriozko eragozpenei buruz behin eta berriz kexatzen badira, Alkatetzak, horiek egiaztatu ondoren, egokitzen jotzen badu, ixteko ordutegia aldi baterako edo behin betiko mugatu ahal izango du, eta, hala badagokio, lizentzia baliogabetu eta kontratua ebatziko da.

5. - ONDASUN ETA INSTALAZIO PUBLIKOAK XEDATZEA ETA ITZULTZEA

Mutrikuko Udalak esleipendunaren esku jarriko ditu, esleipena egin eta hurrengo 10 egunen barruan, 4. Atalean aipatzen diren zerbitzu hori emateko behar diren ondasun eta instalazio publikoak.

Esleipen-egintzatik aurrera Mutrikuko Udalak ez du inolako betebeharririk izango instalazioetako eta inguruko baliabideen baldintzei eta egoerari buruz.

Hala badagokio, esleipendunaren kontura izango da Itsasertz Zerbitzu Probintzialak udalditik kanpo jabari publikoa okupatzeagatik zehaztu dezakeen kanona.

Kontratuaren amaieran, esleipendunak itzuli egin beharko ditu ondasun eta instalazio publikoak, 4. paragrafoan zehazten den bezala eta esleipendunak instalatutako osagarriak, ostalaritzako ekipamendua eta behin-behineko elementuak eta elementu desmontagarriak kendu beharko ditu. Horretarako hilabeteko epea izango du. Ezarritakoa betetzen ez bada, elementu horiek hondakin gisa tratatuko dira.

6.- ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK

Kontratazio organoak, SPKLren 2017ko 190. eta 191. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, honako prerrogatiba hauek ditu:

- a) Kontratua interpretatzea.
- b) Betetzeak sor ditzakeen zalantzak ebaztea.
- c) Interes publikoko arrazoiengatik kontratua aldatzea.
- d) Kontratua suntsiaraztea erabakitzea eta suntsiarazpen horren ondorioak zehaztea.
- e) Covid-19ak sorturiko osasun krisiak eragindako egoeratik eratorritako beste edozein.

EGINBIDEA: Baldintza teknikoaren agiri hau 2021eko maiatzaren 10eko Alkatearen 102/2021 Dekretuaren bidez onartu da.